

## Poesia errezitaldiak egongo dira Igorreko Udal Liburutegian

13. orrialdea

## Oier Etxebarria eta Amaia Aldayren partiduak Igorreko frontoian

Hiru binakako partidu jokatuko dira Igorren zezeilaren 16an, 17:00etatik aurrera. Lehenengoa, Emakume Master Cupeko Eskuz Binakakoa eta horretan Amaia Alday dimoztarra eta Ainhoa Romero lemoztarrak jokatuko dabe. Oier Etxebarria igorretarrak jokatuko dau partidu nagusian. 10. orrialdea



## Emaitza onak arratiarrak One Wall modalidadeko Dutch Openean

10. orrialdea

TOKIKOM

# begitu

arratia ubide zeberio

# 312

2019ko zezeilaren 14a  
hamabostekaria  
[www.begitu.org](http://www.begitu.org)

## San Balendin eguna amodiotik harago

**S**an Balendin eguna Piedadeko artea neurtuz ospatuten dabe Zeanurin Eleizondokoak, oin dala 61 urte sortutako tradizioari jarraituz.

San Balendin egunean maitasunaren eta laguntasunaren eguna ospatuten da,

aspaldi honetan, maitasuna, amodio erromantikoagaz lotu bada be.

Baina nor izan zan San Balendin? Jon Uru-txurtu Zeanuriko historialariak eta Juan Manuel Etxebarria Zeberioko etnolinguistek erantzungo deusie itaunari. 8. eta 9. orrialdeak



## Ruper Ordorika eta Anje Duhalde Arratian



**E**gun berean baina kontzertu desbar-dinetan egongo dira euskal kantatoretore mitiko bi honeek.

Anje Duhalderen kontzertua izango da lehenengotik. Arratia kantuz-ek antolatuta, arrastiko 18:00etan eskainiko dau kant-

dia Areatzako Udal Aretuan. Ruper Ordorikak barriz, gaueko 21:30ean emongo dau kontzertua Igorreko Lasarte Aretuan, Udalak antolatutako emonaldian.

Biak 30 urte baino gehiago daroetz euskal musikagintzan. 8. eta 9. orrialdeak

### ARRATIA

## 21. Korrikako kilometroak erosteko aukerea Igorreko Kubulu Euskaltegian

Korrika apirilaren 4tik 14ra izango da Garestik Gasteizera. Arratiatik apirilaren 13an pasauko da eta lekukoa eroan gura daben alkarte eta norbanakoai kilometroak erosteko momentua heldu jakie. Korrika Laguntzaileak be hilaren 18tik 22ra erosi ahal izango dabez petoak.

Zezeilaren 7an, 21. Korrikaren aurkezpena egin eban AEK-k. Bertaratutakoak, leloa, kantua eta Jose Luis Alvarez Enparantza "Txillardegí" omenduaren barri jaso eben. 5. orrialdea



### ZEANURI

## 2019ko aurrekontuak onartu dira

EAJ-PNVren aldeko botoakaz eta EH Bilduren kontrakoakaz onartu ziran Zeanurin aurtengorako Udal kontuak. Kontuok 1.846.244 eurokoak dira. Diru kopuru horrezaz gainera, igazko soberakina, 400.000 euro ingurukoa be, badauka Udalak. Soberakin horren erdia konprometiduta dagoala dino alkateak eta beste 200.000 euroak erabiliko dituela aurrekontuetako diru partidak osotuteko. Udalak hasitako obrak amaitu eta bideak konpondu gura ditu aurten. 7. orrialdea

publizidadea  
94 631 73 14 eta 649 979 115



[www.begitu.org](http://www.begitu.org)

Gugaz harremanetan ipinteko  
94 631 73 14 eta 649 979 112  
[begitu@topagunea.com](mailto:begitu@topagunea.com)

### ARRATIA

## EH Bilduk eta EAJ-PNVk alkategaiak aurkeztu ditue

Maiatzeko udal hauteskunderarako euren zerrendaburuak aurkeztuten jarraituten dabe Arratiako partidu nagusi biak. EH Bilduren alkategaiak Jose Mari Atutxa, Diman; Saioa Elejabarrieta, Lemoan; Illart Gumuzio, Igorren eta Asier Garcia Areatzan izango dirala emon dau jakitera koalizioak.

EAJ-PNVk barriz, 9 udalerritako alkategaiak aurkeztu ebazan zezeilaren 9an Igorren. Honeek dira: Begoña Llano, Arantzazun; Damian Agirremota, Areatzan; Alberto Intxaurreaga, Artean; Aitor Sorriketa, Bedian; Josu Gorospe, Diman; Andere Ortuzar, Igorren; Iñigo Zuloaga, Lemoan; Aser Astorgano, Ubiden eta Eider Ajuria-gerra Zeanurin. 6. eta 7. orrialdeak



## ZEURE BERBEA

### Zeure Berbea

Espazio hau irakurleentzako espazioa da. Irakurleak gura dauana adierazoteko lekua. Bialdu zuen kezak, eskeronak, hausnarketak, burutazioak edota ideak karta baten bidez eta erabili BEGITU beste irakurleai zuen ikuspuntua helarazoteko. Argitaratutako derrigorrezkoa da izen osoa, NA-ren zenbakia eta herria emotea.

Zeure Berbea hamar herritan entzungo da. Zeuk daukazu berbea. Entzuteko prest gagoz. Hauxe helbidea:

Zertu Kultur Elkartea

BEGITU aldizkaria

Herriko Plaza 24

48142 Artea

Edo, helbide elektroniko honetara bialdu zure gutunak:

[begitu@topagunea.com](mailto:begitu@topagunea.com)

BEGITU ALDIZKARIA

Zure eretxia agertu gura badozu, Zeure Berbea atala zabalik daukazu. Ez da komenidu makinazko 15 lerro baino gehiago idazterik gutunotan. Izena, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezker, BEGITUk eskubidea dauka horretarako. Gutunak hona bidali: Zertu Kultur Elkartea. Herriko plaza, 24. 48142 Artea edo [begitu@topagunea.com](mailto:begitu@topagunea.com) helbidera.

## GEURE BERBATEGIAREN LEIHOTXUA

ANGEL LARREA ETA JUAN REKALDE

### Lainobehera



Egun euritsuen ostean eta ezotasunak (hezetasunak) eraginda, goizetan erreka inguruetan, ibarretan, sortuten dan laino meheari lainobeherea esaten jako (lañobérea, ahoskatuta). Batuan, behelaino eta laino dira; lainoa zeruetakoa da guretzat. Antzeko esangurea edo bardina daukien berbak badagoz Arratian, esate baterako, lainabeherea, lanbroa (lanbróa, ahoskatuta) eta erlaino. Amaituteko, adibide bat: "Goizeko lainobeherea eguerdirako desagertu egin da, eguzkiak urten daualako".

## ERETXIA

### Janari azkarretik harago: su txikian prestatutako urtenbideak behar ditu Venezuelak

Venezuela krisi politiko, sozial eta ekonomiko konplejua sufriduten dago. 2019ko urtailaren 23an, Juan Guaidó, Asanblea Nazionaleko presidentea, botere ejekutiboaren eskumenak bere gain hartzean ebazala aldarrikatu eban, errepublikako bitarteko presidentea gisa jarduteko eta, holan, hauteskunde presidentzialak egite aldera transizino prozesua gidatzeko.

Aldarrikapen haren ondorioz konfrontazio politiko luzea sortu da herrialde barruan zein kanpoan, baina horrek ez gaitu eroan behar egoera kolore zuri edo baltzean ikustera: hau da, Nicolás Maduro tinko defendatzea edo Ameriketako Estatu Batuetako (AEB) gobernuaren neurri esku-hartzaileak babestea. Venezuelako gizartea horren polarizata dagoan honetan, ñabardurak garrantzitsuak dira, eta kontakizun biren artean ezeinek ez dau biltzean benetan gertatzen dana. Batez be, krisiak egunerokotasunean daukan eragin handiaz berba egin behar dogu, behartutako migrazio flujua barne, eta krisiak andregan daukan eragina ikusi arazoten, bizitzaren kudeatzaile nagusiak diran alde-tik.

Salatu egin behar dira, era berean, Maduroren gobernuaren izakera autoritarioa; burokrazia, ustelkeria eta zabarkeria estatu kudeaketan; gizartearen protesten aurrean estatuaren segurtasun indarrak larregi erabiltea eta errepresioa apliketea (2019ko urtailean 40 hildako eta 800 atxilotu baino gehiago erregistra-



### ANA MARIA PALACIOS

Abogadu venezuelarra, giza eskubideetan aditua

trau ziran); oinarritzko zerbitzu publikoen gabezia, zerbitzu irisgarriak eta kalidarezkoak; eta hiperinflazioaren ondorioak. Bide batez, neoerauzketan oinarritutako eredu ekonomiko sostengaezina be zalantzan ipini behar da, petrolioaz gainera baliabide mineralen ustiapena be eragiten dauana Orinocoko Meatze Arkuan, Amazonia bete-betean. Horri nazinoarteko zigorrak gehitu behar jakoz; giza eskubideak urratzeagaitik Venezuelako gobernuko goi karguengan ez ezik, herrialdearen beraren finantzaketa gaitasunean be eragina daukie. 2017. urtetik, organismo publiko venezuelarragazko transakzio ekonomiko guztiak debekatzen

ditue AEBek, PDVSA petrolio enpresa estatala barne, eta harezkerok bertako ekonomiarik eusteko Venezuelaren gaitasuna mugatzea helburutzat daukien zigorrak gaineratu besterik ez dabe egin. Oinarritzko beharizanak asetzeko inportazioen menpe bizi dan estatu baten, holango neurri hertsagarriak ez dabe bakarrik ekonomia nazionala kaltetzen; giza eskubideak be arriskuan ipinten ditue, Nazino Batuen Giza Eskubideetarako Goi Komisarioaren Bulegoak urtaila amaieran azaldu eban moduan.

Honaino zelan heldu garan jakiteko hausnarketa prozesu sakona egin behar badogu be, oin urtenbide demokratiko eta bakezaleak bilatzea jagokuz, eta urtenbide horrek herriaren autodeterminazio printzipioa hartu beharko dau aintzat, Konstituzioaren eta Nazinoarteko Zuzenbidearen babespean, nazinoarteko komunitate hegemonikoaren presino oldarkor barik.

Jakina danez, Venezuelako arazoaren dimensioak ondorio humanitarioak be baditu, batez be elikadurearen eta osasunaren esparruetan. Ha-ta guzti be, laguntza humanitaria helburu politikoetarako instrumentalizetan dabela ikusten dogu, baita ekintza humanitarioaren inparzialtasun, neutraltasun eta independentzia erispideak bazterten dituela be.

Laguntza humanitaria sartzeko Guaidó aurkeztutako plana gauatzeko armadak modu inplizituan aitortu behar dau Guaidó, zilegizko presidentea modura, agintea daukala. Une honetan Kolonbiagazko muga "burruka politikoko" zelai modura erabilten dabilz, Maduroren Gobernuaren eta indar militarren artean dagoan hartu-emona apurtzeko. Krisi ekonomiko eta humanitaria larriagotzea (hordago gisa) ez da gatazkak modu baketsuan konpontzeko oinarria. Amaitzeko, urtenbide venezuelarraren "erre-zeteagaz" asmatzeko osagai asko behar dira, eta, horregaitik, ezin dogu errealdarearen kontakizun sinplifikau bakarra euki.

**Erredakzinoan itzulia**

**BATZ 50** urte

BATZ, S. KOOP.  
Torrea auzoa, 32  
48.140 IGORRE (BIZKAIA)

IZAN GINAN...

...BAGARA ETA IZANGO GARA

Errealdak Batz gaitia

MONDRAGON 350

## LUMATUTEN



RUTH LINAZA

## Andra kirolariak eta martiaren 8a

**U**rtaile pasau danean eta zezeilak aurrera egin ahala, martiko hilea be badatorrela kargututen gara. Eta bertan egun berezia ospatuten dogu. Zoritxarreko beste ospakizun horreetako bat da nire ustez. Oindino ospatutea beharrezkoa dalako eta oindino burrukeari ekin behar deusagulako. Martiak 8agaitik nabil ibili. Emakume Langileen Nazinoarteko egunagaitik hain zuzen be.

Horren harira, Emakume Master Cup Txapelketea, Euskotren Liga, Emakumeen Futbolako euskal derbia... Pelotea, arrauna, futbola... dira ardatz txapelketa edo partidu horreetan, baina zoritxarrez, kirol eta baliabide arlotik, mutilengandik oso urrun kokatuten diranak dira honeek oindino be. Jai handia izan zan igazko aprilean Astelena pelotalekuan bizi izan zana. Gorengo mailako andrazko pelotariak final handi bate-

ko eta merezi eben eszenaleku baten protagonista. Itzela. Historikoa. Hasikerearen lehen urratsa.

Euskotren Liga be hor dago, gorengo mailako andrazko arraunlariz osotutako ligea, andra arraunlari talde onenak buruz buru itsaso ankerrenean jantzan, euren gaitasuna erakutsiz. Itsaso maltzurrena egoan Kontxako bandera jokatu ebenean, neskak ureratu ziralako, mutilak uretaratu "beharra" izan ebenean bezala.

Azken aldiz San Mames betetea legez, Athletic-eko neskak ikusten eta animetan, inoz egon dan jarraitzaile kopuru handienak bete ebanekoa.

Eta abar luze bat. Erronkak ipinten dira eta andra kirolariak ez dabe hutsik egiten. Daukien onena emoten dabe aukerea eskaintzen jakien guztietan.

Baina horixe da behar dana, aukerak emotea, laguntzak eskaintzea eta mutilen maila izateko eskubidea izatea. Merezidu dogulako, beti be bardintasunean ekinez eta gizonakaz pausuk emonda.

Ez gara etsai, ez gara arerio, bardintasunaren bide luze honetan, sokalagun izan behar dogulako andrak eta gizonak eta eskubide berberak euki behar doguzalako.

Martiak 8, urteko egun guztiak izan daitezcan, ekin bardintasunaren burrukeari!

## ZERTZEAN



LEIRE AGINAGA

**I**ratzargailuaren hots zakarrarekin batera eta begiak irekitzeko ahalegin izugarriak egin eta gero *manzanilla botatzen hasi beharko naiz, betileak elkarren artean kiribiltzen zaizkit goizero* esnatu zen Mikele. Ezkerreko oina manta azpitik atera eta behatzek neguko hotzaren presentzia somatzean, amak egindako galtzerdiak izara artean bilatzeari ekin dio besoa ohe barrura sartuz.

Hauk jantziak batera ezker oina eta segidan hanka izarapetik atera eta eskumakoari ekin dio. Oraindik subkontzienterako bidean dituen ametsz gogoratzen saiatzen den arren, ez du horietan zeukan irria azaleratzea lortzen. Sukaldera abiatu da eta bertan hozkailutik mermelada atera, atzoko ogia txigortu eta astiro-astiro jan ditu 2 tostadak, prisa pixka bat zeukala ahaztuta. Musika jartzeko mugikorra hartu eta bertan agertu zaizkio mezu mordoxka *Mikele non zautz? Danok zuri itxoten gabiz, itxartu!* Arineketan armairura joan eta arropa garbirik ez zuela ikusterakoan, lurrean zeuden aurreko eguneko arropak jantzi ditu, eta haginak garbitu behar zituela ahaztu plantak eginez, etxetik irten da.

Bilerara berandu heldu den arren, entzuten dabilenaren plantak egin ditu ordu eta erdi horretan. Kideekin pare bat hitz trukatu eta etxerako bidea hartu du berriz, alaba txikiaren bila ikastolara joan behar baitu. Kotxean sartu eta bazkaritarako ezer ez duela gogoratzean, supermerkatuko bidea hartu du ohikoan baino bizkorrago gidatuz, alabak itxaron behar ez dezan. *Zelan klasean? Asko ikasi dozu?* Betiko galdera tipikoez hartu dute kotxe barrua eta betiko erantzun tipikoei utzi die gero tokia *bai, betiko moduan, ondo*. Ixiltasuna nagusitu da orain ibilgailuan.

Etxera iritsi direnerako bazkalordua da jada, supermerkatuan erosi dituen makarroiak egosi ditu eta alabari platerera serbidu dizkio, honek harridura arpegia estali gabe *eta bigarren platera?* galdetu dio. Prestatzeko astirik eduki ez duela azaldu diotenean ezer esan ez duen arren, alabaren ahoan mardarikaz hitz batzuk somatu ditu. Mahaia batu eta harrikoa egiteari ekin dio.

*Nire burua faltan somatzen dot* esanez duela 6 hilabete kajoian gordetako zigarroa berreskuratu du.

\* Zertzean atalean argitaratuko doguzan testuak, literarioak edota sormenekoak diranez, heltzean diran moduan argitaratuko doguz eta ez doguz gure euskera eredian ipiniko.

Tarte hau zeuretzako be dago zabalik, holango sormen-lanak BEGITUN argitaratu gura izan ezkerro, eskatu egiguzuz argitaratzeko baldintzak [begitu@topagunea.com](mailto:begitu@topagunea.com) helbidean.

## BEGI TXINDORRA

**M**artiaren 8an andra, trans eta bollerak lan guztiak egiteari itxi eta kaleak hartuko doguz. Greba feminista bizitzako esparru guztietan kokatzen da, soldatapeko zein dobako lanetan, sexualidadean, konsumo eredian, familia eregiteko moduan, jakintzak ekoizteko eran, errazakeriaren aurrean, edertasun eredian eta zapalkuntza guztien aurrean. Zoritxarrez, errazoiak sobran daukaguz...

Greba antolatzeke zezeilaren 1ean 35 andra inguru batu ginan Diman giro alaian. Hasikeran alkar ezetuteko jolas bat egin genduan. Ondoren, irudikatzeke zer egingo dogun greba egunean, talde txikietan idea zaparradea egin eta ostean danok batera ebatzi genduan manifestazinora deitzea; ostean, *tupper* bazkari bat antolatzea (musikeagaz zelan ez!) eta arrastian Bilboko manifestazinora joatea!

Ha-ta guzti be, adi egon aurreko egunetan, ekimen mordoa antolatu dogulako herrietan motorrak berotzeko, eta horreetan be parte hartzera animetan zaituegu! Kalean alkar ikusiko dogulakoan gagoz!

Gora borroka feminista!

**M8ko greba antolatzeke Arratiako asanbladea**



**Gorosti** Lorategien Diseinu eta Gauzatzea  
Ureztaketa instalazioa  
Mantenua eta Inausketa  
LORAZAINTZA  
Bidosola Industrialdea E2 Pab. 48.142 Artea  
Tel: 94 673 96 34 Faxa: 94 673 96 88  
gorosti@gorostisci.com

**agoa** Ortodontzia  
Implanteak  
Estetika  
Marina Uriagotia Aldekoa  
Odonatologia  
Bidebarri 1, behea  
48140 Igome-Bizkaia  
T. 94 631 50 39  
Kalegata Zerbaita 101  
R.F.S. 21/06

**J.A. IZQUIERDO**  
PINTURA LANAK  
MOKETA · SINTASOLA · PAPERERA  
Elexealde, 33 D - 1ºB - 48140 IGORRIE (Bizkaia)  
Tel. 94 621 64 62 - 808 864 018

**begitu**  
arreta ubide sobera

## ARRATIA

# Korrika laguntzaileak petoak erosi ahal izango ditue zezeilaren 18tik 22ra



### Erredakzioa

Arratiako Korrika Laguntzaileak hilaren 18tik 22ra erosi ahal izango ditue petoak Igorren, Kubulu Euskaltegian, eta 22tik aurrera, petorik geratuten bada, gainontzekoen txandea izango da. Arratiatik zehar doazen kilometroak erosteko epea be zabalik dago.

Zezeilaren 7an, Arratiako AEK-k 21. Korrikaren aurkezpen ekitaldia egin eban. Bertara, Arratiako hainbat gizarte eragile hurreratu ziran.

Aurtengoa 21. Korrika izango da eta apirilaren 4tik 14ra egingo dau ibilbidea Garestik Gasteizera. Apirilaren 13an, 21:00ak aldera sartuko da Arratian. Mezua eta leloa, "Klika" da. "Klika egitea aukera bat hartzea da, euskeraren aukerea hartzea, hautua egitea". Aurtengo Kantua, Fermin Muguruzak, Mad Muaselek eta La Furiak egin dabe.

Omenduaren barri be emon zan

ekitaldian. Jose Luis Alvarez Enparantza "Txillardeggi" da aurtan. "Ondo merezidutako omenaldia jaso eban zezeilaren 9an Donostian". Han, dokumental bat erakutsi zan Txillardegiren bizitzaren gainekoa. AEK-k, EHUK eta Jakin Aldizkariak liburu bat argitaratu dabe Txillardegiren bizitza eta euskereari egindako ekarpenak jasoten dauana.

### Korrika

Oin dala 39 urte sortu zan Korrika helburu bigaz eta "zoritarrez helburu bi horreek, indarrean dagoz" azaldu deutso BEGITURI Klara Astondoa AEK-koak. Bata euskerearen aldarrikapena, eta bigarrena, dirua biltzea dira. "Sortu zanean, egoera txarrean egoan AEK eta gaur egun be bai. EAEn laguntzak dezente hobetu dira, baina Nafarroan arean-arean eta Iparraldean gagoz orduan gengoan moduan" eta AEK-k euskerearen lurraldetasun osoan egiten dau behar.

## ARTEA

# Hamaika enpresak hizkuntza plan bat eukitearen garrantziaz jardun eben Arteako Bildosola Industrialdean

Zezeilaren 1ean, eusGara egitasmoan parte hartzean daben enpresak batu ziran Sprik Bildosola Industrialdean dituan bulegoetan euren esperientziak partekatzeko.

### Erredakzioa

Egitasmoak euskerea lan munduan sartzea dauka helburu eta 3.000 langile baino gehiagori eragiten deutso. Jardunaldian, enpresetako ordezkariak gainera, egitasmoa bultzatzen dauan Errota Fundazinoako koordinatzailea Iratxe Goikoetxea, Ana de Castro Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara Zuzendari Nagusia eta Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Saileko Josune Zabala egin ziran.

Urtebete eskas danean proiektua abiatu zanetik, Arratiako hamaika enpresak euren enpresetan euskerearen erabilerearen gaineko diagnostikoa egin dabe.

Hortik abiatuta euskerea bultzatzeko plan bat egingo dabe.

### Euskerea Arratiako lan munduan

Iratxe Goikoetxea emon eutsan hasikerea jardunaldiari eta gero Foru Aldundia eta Eusko Jaurlaritzako ordezkariak hartu eben berbea. Ondoren, Batz eta Tresnak enpresetakoak, Laneki alkatetakoak eta Zulaibar Lanbide Heziketa Ikastegiako Arkaitz Bernaola irakasleak. "EusGara egitasmoagaz, ikasturte honetan ikasleai laneko praktikak euskeraz egiteko aukerea eskainiko deutsegu. Eta datorren urterako formakuntza dualera doazen ikasleak be instruktore euskaldunak izateko ahaleginak egingo

doguz" esan eban Zulaibarrekoak.

Proiektuan lanean hasita egon arren, eguna aprobetxau eben Errota Fundazinoagaz hitzarmena sinatuteko. Baina ez zan hori izan Zulaibarrek sinatu eban hitzarmen bakarra. Izan be, ikasleak praktikak euskeraz egiteko Batz, Comecaran, Jandoniz eta Ormaurre enpresak be sinatu ebazan hitzarmenak.

### Bideoa

Egitasmoan parte hartzean dabenak *EusGara Arratiako enpresetan zerbitzuak eta beharra euskeraz izeneko bideoa grabau dabe*. Bertan, euskerea lan munduan sartzeak enpresa honeetan izan dituen onurak azaltzen ditue proiektuko partaideak.



Arteako Industrialdean batutakoak.

Arratia  
Ibilbide eta zeberrioko  
euskerea  
eta kulturearen alde

Hamabostero  
begitu zeure etxean

Egin zaitez zeu be  
Degitu-lagun

Etxean jasoko dozuz Zertu Kultur Elkarteak ateratako produktua.  
Hamabostean behin sari izelen zozketan parte hartuko dozu.

Zertu Kultur Elkartea  
Berrao Plaza 21. 48112 Arratia

Izen-abizenak:  
Ibilbidea:  
Ikerria:  
Telefonia:  
E-posta:  
Urteko kuota aukeratu: 35€ 55€ 75€

**begitu**  
mutila utzi ezazu

## LEMOA

## Saioa Elejabarrieta izango da EH Bilduren alkategaia udal hauteskundeetan

**Erredakzioa**

Oingo Lemoako alkate dan Saioa Elejabarrieta Amorrortu, legegintzaldi bi eta gero, EH Bilduren alkategaia izango da 2019ko udal hauteskundeetan Lemoan. EH Bildun, abenduan egindako barne prozesuan, Elejabarrietaren izena proposatu zuen zerrendaburu izateko eta bera prest agertu zuen aurrera egiteko.

Saioa Elejabarrietak 35 urte ditu; pedagogia terapeutikoan espzializata dago eta haur hezkuntzako irakaslea da. 2011tik Lemoako alkatea da.

**Zinegotziak martian**

Lemoako EH Bilduren hauteskunde zerrenda osotuko dabenean, pertsonak proposatutako eta izentatzeko prozesu parte-hartzailea martian egongo da.

## DIMA

## Jose María Atutxa Olabarri izango da EH Bilduren alkategaia 2019ko udal hauteskundeetan

**Erredakzioa**

Atzenengo legegintzaldi honetan Dimako alkate dan Nekane Intxaurtza Etxebarriak, Jose Mari Atutxari emongo deustoa lekukoa 2019ko udal hauteskundeetan EH Bilduren zerrendaburu izan daiteke.

Jose Mari Atutxak 45 urte ditu, trokelerian teknikaria da eta Batz-en egiten dau behar. 2015-2019 legegintzaldian EH Bilduko zinegotzia da

Dimako udaletxean. 2018ko urrietan egindako barruko prozesu parte-hartzaileari esker proposatu da Dimako zerrendaburu izateko. Beharrezkoak diran abalak be aurkeztu ditu eta dimoztarrak holan ebazten badabe, alkatetzeari aurre egiteko "gogotsu" dagoala azaldu dau.

Hauteskunde zerrenda osotuko dabenean, pertsonak proposatutako, barruko prozesu parte-hartzailea martian izango da.

## ARRATIA

## Herri txikien bardintasun erronkai erantzuteko taldea sortu da Berdinsarean

**Erredakzioa**

Herri txiki eta handietan andra eta gizonen arteko aukera bardintasuna bultzatzeko, erronka desbardinai aurre egin behar deustela jabetuta, Berdinsareak herri txikien behar espezifikoak identifiketako taldea sortu dau. Herri txikiak, edo euren osaketan herri txikiak daukiezan mankomunidadeetako Bardintasun Teknikariak hartzean dabe parte taldean. 2016an Bedia Berdinsarean sartu zanez, Oihane Zulet Arratiako Udalen Mankomunitateko (AUM) Bardintasun Teknikariak be hartzean

dau parte lantalde honetan.

Oihane Zulet esanetan, "herri txikien errealitatea bestelakoa da" eta indarrean dagozan "bardintasun politikak, planak, prozedurak eta ekintzak" ez jakoz egokitzen errealitate horri. Beharizan espezifiko horreek identifiketako lanean dabilz Berdinsareako lantalde barrian.

**Berdinsarea**

Berdintasunaren aldeko eta Emakumeenganako Indarkeriaren aurkako Euskadiko Udalen sarea da Berdinsarea. Hirurogeta bederatzi udalerrik osotuten dabe sarea; tartean, Bedia.

## ARTEA

## Biolentzia ekonomikoa aztertuko dabe Arteako Andran Gelan

**Erredakzioa**

Zezeilaren 15ean, 18:30ean, martiaren 8aren inguruko programazioaren barruan, Arteako Andra

Taldeak antolatuta, andren kontrako biolentzia ekonomikoa aztertuteko berbaldi-tailerra egongo da, Olatz Dañobeitiaren eskutik.

"Andren kontrako biolentziak



forma asko hartzean ditu. Batzuk ikusgarriagoak egin doguz gizar-tean eta beste batzuk oindino ez dira horren ikusgarri. Ezinezkoa litzateke andren kontrako biolentzia fisiko edo psikologikoa, edo gu akatzea, biolentzia hori eutsi eta zilegi egiten dauan egitura barik. Horregaitik deitzean deustagu biolentzia estrukturala. Eta horreen artean ekonomikoa dago, andrak mendekotasun eta pobrezia lotzean gaituana". Tailerrean EAEko egoera aztertuko dabe, kasu larri biren bitartez.

**Olatz Dañobeitia**

Olatz Dañobeitia Ceballos (Lekeitio, 1976) EHUko Antropologia Feminista Ikerketa Taldeko kidea da. Haur Hezkuntzan diplomadua (EHU, 2011) eta Soziologian lizentziadua (EHU, 2013), *Ikasketak feministak eta generoak* masterra egin dau. *Biolentzia politikoa eta generoa Euskal Herrian, 90. hamarkadan. Ezker Abertzaleko emakumeen kasua* deritxan tesia egiten dabil.

## ARRATIA

## Fasio, Leon eta Maurizia txotxongilo handiak Katalunian egon dira



**Mikel Urriz, Pili Aranburu eta Janire Campo Maurizia, Fasio eta Leonegaz.**

**Erredakzioa**

Arratiako musikari handiak omentzeko sortu ziran txotxongilo erraldoiak Katalunian egon ziran urtailaren 26 eta 27an. Astegoen horretan Bartzelonatik hur dagoan Castellbisbal herriko erraldoien konpartsak, bere "28a Trobada Gegantera de Castellbisbal i Trobada Internacional de Gegants Músics" antolatu eban.

Erraldoien nazinoarteko elkartzatze honetan, Ingalaterra, Frantzia, Katalunia eta Euskal Herriko erraldoien konpartsak parte hartu eban. Euskal Herriatik, Arratiako musikari handiakaz batera, Nafarroako Aurizberriko erraldoien konpartsea egon zan.

Arratiako musikari erraldoien kalejiran, Areatzako tailerrean txotxongiloak egiten ibilitako kideak egon ziran.

## ZEBERIO

## Suak Egia auzuneko baserri bat hartu eban eta lagun bat zauritu zan

**Erredakzioa**

Zezeilaren 5ean, 21:30ak aldera gertatu zan. Sutearen ondorioz, 90 urte inguruko gizon bat, kea arnastuta, larri zaurituta ospitaleratu behar izan eban. Basauri eta lurretako suhiltzaileak gau osoa emon behar izan eban han.

Sutearen lekukoak Geuria aldikariari egindako adierazpenen arabera, 40 minutu pasau ziran sua biztu eta gizona atera eban arte. Hasieran, auzokoak saiatu ziran gizona ateraten baina ezin izan eban suaren indarra zala-eta. Suhiltzaileak atera eban etxetik eta Gurutzetan ospitaleratu eban larri.

Baserriak etxebizitza bi eukazan. Ezkerrekoa, egurrezkoa, izan zan gehien erre zana.



**Egia baserria. Argazkia: Etxahun Gonzalez Sarria (Geuria).**

## ARRATIA

# Kataluniako prozesu subiranistaren epaiketaren kontrako konzentrazioak

### Erredakzioa

Zezeilaren 12an hasi zan Madril, Kataluniako prozesu subiranistako buruzagien kontrako epaiketea eta Euskal Herriko leku askotan elkarretaratzeak egin ziran, "Kataluniako gobernuaren kontrako epaiketea salatuteko" eta epaituak babesa emoteko.

Arratian be, Gure Esku Dagok deituta, "Elkartasuna aterpe. Konponbidea, Democrazia, Llibertat" goiburua hartuta, konzentrazioak egin ziran iluntze partean. Areatzan 45 lagun inguru batu

ziran plazan, Igorren 30 inguru Kultur Etxe ondoan eta Zeanurin be 20 bat lagun.

### Danon kontua

Gure Esku Dago Erabakitze Eskubidearen plataformaren arabera, epaiketea, "danon kontua" da. "Batetik, prozesu judizial horrek oinarrizko eskubideak urratzen ditualako, eta, beraz, danon eskubide zibil eta politikoak ipintzen ditualako jokoan. Eta, bestetik, erreferendum demokratiko bat epaitu eta zigortu gura dabelako" azaldu eben.



45 lagun batu ziran Areatzako konzentrazioan.

## DIMA

# Dimetal Fest-eko bosgarren ediziorako sarrerak salgai dagoz

### Erredakzioa

Urri lehenengoaren 27 eta 28an izango da eta 22 taldek joko dabe, eurretako batzuk nazioarteko mailakoak.

### Sarrera bonoak

Aurreko Dimetal Fest-a arrakasta-

tsua izan zan arren, zorrak hasi dirala bosgarren edizino honetan dinoe antolatzaileak. Horregaitik, jaialdia mantendu ahal izateko ahaleginean, sarrera bonoak ipini ditue salgai.

### Salmenta online eta eskura

Lehen 200 bonoren salmenta "gero karutuko dan" prezio simboliko baten salgai dago. Sarrera eskuratu gura dabenak, Dimetal Fest-eri laguntzen deutesen tabernetan erosi daitezke; Dimako Baltzola tabernan, Bilboko Iturribideko Metal tabernan eta Gasteizko Urban Rock Concept aretoan, berbarako. Baita webgune ofizialean be.

Jaialdiaren aurkezpena Gasteizen izango da zezeilaren 23an. Han, Thunder Mother suediar taldea egongo da, baita Dj Achtung, Koldo Munitxa be, musikea ipintzen. Dimetal Fest-erako sarrerak eta merchandising-a zozketatuko dira aurkezpen ekitaldian.

**DIZIPLINA ANITZEKO ZENTRUA**

- Psikologia
- Logopedia
- Fisioterapia
- Ulermen tailerra
- Jarrera arazoak
- Emozioen tailerra
- Psikomotrizitatea
- Adimen emozionala
- Trebetasun sozialak
- Estimulazio goiztiarra
- Eta askoz gehiago...

652 702 650 / 672 481 370  
Lehendakari Agirre 4 · Igorre maite.eileke@gmail.com

## ZEANURI

# Martxan dagozan obrak amaitu eta bideak konponduteko dirua dago aurrekontuetan

### Erredakzioa

2019ko Udal aurrekontuak zezeilaren 9an onartu ziran, EAJ-PNVren aldeko botoakaz eta EH Bilduren kontrakoakaz. Aurtengo aurrekontuak, 1.846.244 euroko diru kopurua izan arren, igazko gerakinetatik 200.000 euro be inguru erabiliko ditue. Igaz, 400.000 euro geratu ziran; horreetatik, erdia inguru konprometiduta dago eta beste erdia aurtengo inbersino eta proiektuetan erabiliko dabe.

Aurten batez be "martxan dagozan obrak amaitu eta bideak konpondu gura doguz" azaldu deutso BEGITU Eusebio Larrazabal Zeanuriko alkateak. Holan, saneamentu planakaz hasteko 50.000 euro dagoz 2019ko kontuetan. "Dana batera egin beharrean, auzune batekoa martxan dagoanean, beste batekoa hasiko da".

Plaza berrantolatuten jarraituko dabe Zeanurin. Zati bat, igazko partideagaz egingo da. Frontoi txikia estali, kotxeai plazan sartzeako mugak ipini eta inguruko aparkalekuak antolatutea



Aurrekontuetako plenoa.

da Udalak aurten egiteko asmoa daukana. Horretarako 20.000 euro dagoz. Igertualdeko parkinero obrak amaituteko dirua be badago 2019ko udal kontuetan.

Gastu sozialari jagokonean, gazteak lokal bat izan dagien 10.000 euroko diru partidea dago eta jubiladuak jarduerak egiten jarraituteko be dirua dago. Jubiladuak biaje bat egiteko 3.000 euro dagoz, berbarako.

Herrialde pobretuak laguntzeko diru partidea igazkoaren erdia da

eta 8.000 eurotatik 4.000 eurota pasau da aurtengo kontuetan.

### EH Bilduk kontrako botoa

EH Bilduk osoko zuzenketea aurkeztu eban baina ez zan aurrera atera eta ezezko botoa emon eban. Bildukoak ez egoazan ados egiteko moduagaz, ezta edukiagaz be. Izan be, "aurrekontu honek egiteko ez dogu batzarrik ikusi" esan eben. Gainera, planak falta dirala eta epe laburrera begira eginda dagozala aurrekontuok dinoe.

## ARRATIA



Arratiako herrietako EAJ-PNVko hautagaiak udal hauteskundeetarako.

# EAJ-PNVk Arratiako hautagaiak aurkeztu ebazan Igorren

### Erredakzioa

Igorren egin zan zezeilaren 9an, EAJ-PNVk maiatzaren 26an aurkeztuko dituan udal eta foru hautagaitzak ezagutu arazoteko ekitaldia. Itxaso Atutxa, Bizkai Buru Batzarreko presidentea egon zan

bertan eta "Bizkaia osoan" lortutako arrakasta Arratiara ekarteko konbentzimentua adierazo eban.

Ekitaldian, Itxaso Atutxagaz batera, Unai Rementeria, Bizkaiko Ahaldu Nagusi eta berbaraketarako hautagaia eta Arratiako udal eta foru taldeak

eta eskualde osoko alkategai jeltzaleak egon ziran. Honek dira alkategaiok: Begoña Llano, Arantzazu; Damian Agirremota, Areatzan; Alberto Intxaurreaga, Artean; Aitor Sorriketa, Bedian; Josu Gorospe, Diman; Andere Ortuzar, Igorren; Iñigo Zuloaga, Lemoan; Aser Astorgano, Ubiden eta Eider Ajuriagerra Zeanurin.

Atutxak alkatetzarako hautagaia eta euren taldeai "EAJ-PNVren proiektua, gure herrirentzako proiekturik onena" defendatzeko eskatu eutsen.

## SAN BALENDIN

# Artea neurtuz ospatuko dabe San Balendin jaia Eleizondon (Zeanuri), zezeilaren 17an

61 urte beteko dauz artea neutzearen tradizioak.



Oin dala 61 urte hasi ziran Piedadeko artea neurtzen eta urtero errepikatzen dan tradizioa da.

## Jon Urutxurtu

Aurten be San Balendin jaia ospatuko da Zeanuriko Eleizondo auzoan, Piedadea izenez ezagutzen dan ermitearen inguruan. San Balendin egunaren osteko domekan, zezeilaren 17an. Aurten artea neurtzen daben 61. urtea izango da.

Jaia ospatzeko egitarau apala, baina, aldi berean, bitxia antolatu dabe eleizondotarrak: 11:30ean mezea izango da Andra Mari parrokian; meza ostean, San Balendinen irudia parrokiatik 50 bat metrora dagoan ermitara eroango dabe prozesinoan, datorren urtera arte bertan ixteko, eta jarraian ermitearen aurreko artearen neurketari ekingo deustsie. Neurketearen akta sinatu eta gero, aurtengo maiordomoak, Julen Llanosek, datorren urtekoari, Gabriel Herrererori, agiri-liburua eta ermitearen giltzea pasauko deustsaz. Ostean, barauskarria egongo da, urdaia, pamitxea eta ardaoa, bertara hurreratzen dira-

nentzat. Ekintza horreek herriko txistularien eta Arkaitz Estiballes bertsolariaren kantuen artean egingo dabez.

Egitarau honetan aitagarria da oin dala hirurogeta bat urte eleizondotarrak hasi eben eta oin dala hamahiru urte, aldi baten bertan behera itxita egon ostean, berreskuratu eta ofizialtasuna emon gura izan eutsien ekintzea: Piedadeko artearen neurketea.

### Artearen neurketea

Julen Llanos, aurtengo maiordomoaren arabera, "Piedadearen aurrean dagoan artea, lehenago leku berean egoan beste baten ordezkua da; 1958 urtean landatu eben gure aurrekoak. Hurrengo urteetan, San Balendin egunean edota San Balendin eguna ospatzen zan domekan, "gonbit egunean", batzuetan bazkalostean, eta beste batzuetan afalostean, jai giroan, bolanderak botaz, bertsoak abestuz... artea neurtu egiten eben". Neurtzeaz Gorordo

baserriko Zeferino Lejarreta (+) arduratzen zan. Eta neurtu ostean, jaia amaituzat emoten zan. Zeferinoren koadernoetan lehen urteetako neurketen zehetasunak aurkitu doguz; lehenengo neurketea 1959koa da, eta zera irakurri daiteke bertan: *La medida de la encina de la Piedad, en los años medidos. Grueso a la altura de 1,50: 0,18.*

Tradizino hau apurka-apurka galdu egin zan eta azken neurketea, Kandido Intxaurregak (+) egin eban 1999an; papertxo batean zera idatzi eban: *Piedadeko artea. 99-2-14. a 1,50 circunf.: 1,50.*

Aurrekoak hasitako ohitua ez dabe galtzean itxi gura eleizondotarrak, eta Julen Llanosek dinoanez, "2007an neurtzen hasi ginan barriro, eta 2008an neurtzeaz gainera, agiri-liburua zabaldu genduan, bertan neurtzaileak, maiordomoak eta idazkariak sinatuz. 2008an, Piedadeko artearen neurketea hasi zanetik 50 urte beteten ziranez, ofizialtasuna

emon gura izan geuntsan ohitura bitxi honeri, aurrerantzean bejarraipena izan daian. Gainera, zugatzari neurri hartzeaz Zeferino Lejarretaren semea, Gregorio Lejarreta (+) arduratu izan da 2105era arte. Gregorio 2015ean hil egin zan eta 2016an Gregorioren lekukoa Igor Intxaurrega

eleizondotarrak hartu eban. Aurrerantzean bera izango da neurtzailea".

Igaz arteari hartutako neurria honako hau izan zan: 189,5 cm-ko perimetrea 150 cm-ko altueran, 2017an baino 0,50 zentimetro gehiago. Zein izango ete da aurtengo neurria?

## San Balendinen biografia

*Erromatar Martirologioak* Balendin izenagaz santu bi aita-tzen dauz: bata, abadea da eta bestea, gotzaina. Beharbada, nahasketa bat egon daiteke, eta persona berberari buruzko historia bi izan daitezke. Bata, Terniko San Balendin da; Interamnako (gaur egungo Terni) gotzaina izan zan. Ospetsua izan zan ebanjelizatze lanagaitik, sendatzeengaitik eta mirariengaitik. Aureliano enperadorearen jazarpenetan kar-

tzelaratu eta burua ebagita hil egin eben Kristo ondorengo 273an. Bere gorpua Terniko katedralean dago.

Bestea, Erromako San Balendin da. Klaudio Godoa enperadorearen jazarpenak jasaten ebezana laguntzen eutsen. Baina bera be kartzelatua eta torturatua izan zan, eta burua ebagita hil egin eben, 268ko zezeilaren 14an. Bere erlikia gehienak Santa Praxades eleizan dagoz.

## Zeanuriko San Balendin irudia zaharbarrituta



Oin dala urte bi Eleiz Museoak zaharbarritu egin eban San Balendinen irudia. Zaharbarritze lanetan 3 atal desbardin bereiztu daitezke: 1- Kolorea finkatu, aurrerantzean arrakalatu edota hondatu ez daiten.

2- Estukatu ("bol" edo igeltsu finaren antzeko sustantzia aplikau) eta estukoa barriro zizelkatu, holan jatorrizko zizelkatzea errespetetako.

3- Berpolikromau (estukoaren gainean margotu). Ia irudi osoa berpolikromau da.

Lan sakonena arpegian eta eskuetan egin zan. Jatorrizko polikromia kontuan hartuz, irudia zaharbarritu egin zan XVIII. gizaldiaren bigarren erdiko irudien eredua jarraituz, eskultura hau ziur asko sasoi horretan zizelkatutakoa da eta.





## San Balendin gurean

Juan Manuel Etxebarria Ayesta

Maitemintzea da gauza bat eta maitemintze hori kanporatzea beste bat. Aiko. Gure aurrekoen kulturari, ia ezkutan maitemintzen ziran jentea. Bikoteak, domeka eta jai egunetan alkartzen ziran erromerietan eta gero mutilak maitemintutako neskeari etxera lagundu. Familia barruan be, ez genduzan gurasoak mosuka ikusten gure aurrean. Astegun buruzurian ez egoan ohiturarik "urtetako", iturriko uretan edo izan ezik. Labur esanda, maitemintzea ezkutan gordetan zan. Aitu noraino. Nik Zeberion batuta daukadanez, ezkutan maitemintutako bikote batek, haurdun egoan andra bateri aitabitxi-amabitxiak izateko eskatu eutsien, era horretara jendaurrean ofizialtasuna emoteko euren alkar hartu-emonari. Denporeagaz, ohiturak aldatuz etorri dira eta gaur egun munduko beste leku askotan legez, San Balendin egunaren ospakizuna zabaldutako egin da euskaldunon artean be eta komertzializatu. Goazen ba harira. Zezeilaren 14an, San Balendin eguna ospatzen dogu, maitasunaren eta laguntasunaren eguna. Guztiok daki-

gu egun horren barri baina ete dakigu nor izan zan benetan Balendin deuna?

Hainbat istorio dago ospakizun honen jatorriaren inguruan, euretariko bat eta beharbada zabaldutako Erromako abade kristau baten istorioa da. Balendin deuna, III. mendean bizi izan zan antzinako Erromako inperioren kristauen persekuzino garaian.

Garai horretan, soldaduak debekatuta eukien ezkontzea, familiagaz lotura emozionalik euki ez egiteko, ezkondu bako gizonen errendimentua gudu-zelaian hobea zala uste zalako. Balendin abadeak, jokabide hori ikusirik, soldaduak ezkontzeari ekin eutsan ezkutan, erritu kristauaren bidean.

Hori zala-eta, Balendinek entzute handia eskuratu eban Erroma osoan, maitemintutako eta ezkutuko ezkontzak babes-teagatik, eta Klaudio II.a enperadoreak deitu egin eutsan ezetuteko asmoz. Balendinek bisitea aprobetxatu egin eban enperadorearen konbenzidutako Jesusen doktrina onartu eta jarraitzea. Lehenengotan, Klaudio II.ak ez eutsan abegi txarrik egin ideari, baina soldaduak eta Erromako agintariak

kontra jartzera behartu eban. Enperadoreak eretxia aldatu eta Balendin preso sartu eban.

Balendin preso egoala, presoekin bere alaba Juliari eskolak emoteko eskatu eutsan Balendin abadeari, eta egunak joan egunak etorri, neskatoagaz maitemintu egin zan. Bera hilgo eban bezperan, agur-karta bat bialdu eutsan Juliari, "zure Balendinengandik" berbakaz sinatua. Hurrengo egunean, 270eko zezeilaren 14an hil eban. Balleiteke hortik etortea gaur gure kulturari maitemintutako artean maitasun kartak eta postalak bidaltzeko ohitua.

San Balendinen istorioa Eleiza Katolikoari esker zabaldutako, mende bi geroagora berreskuratuz.

Garai horretan, Erromako kulturari, jai luperkalak ospatzen ziran. Luperkus-en erritoetatik eratorritako jai paganoa ospatzen eban urtero zezeilaren 15ean. Baina Eleiza Katolikoak, beste jai pagano askogaz legez, Luperkoren inguruko jai pagano horregaz amaitu gura eban eta 498an, Gelasio I. Aita Santuak San Balendin kanonizatu eta maitemintutako patroia bihurtu eban. Harrezkero, zezeilaren 14an San Balendinen jai kristaua ospatzen dogu gurean bere omenez.



Argazkia: Oriol Fernandez

# 2019

*“Begi bizian, begi luzean, begirada sakonean,  
begirada osoan begituten beti” Gontzal Mendibil*

**begitu**  
analisia utulekuaren

## MENDIA



## Haizeak ez deutso lagunduten Alex Txikoneri

### Erredakzioa

Zezeilaren 9an, Alex Txikon, behe kanpalekutik urten eta lehenengo kanpalekura igon zan, eguraldia aprobetxauz, bigarren eta laugarren kanpalekuen arteko bidea ekipetako. Ezin izan eban bide hori ekipau, haize zakarra egoalako, baina haraino 96 kilo material eroatea lortu eban Txikonetik eta bere taldekideak.

Txikonetik segurtasunez jokatuta gura dau eta neurriko arriskuak bakarrik hartu. Horregaitik bueltau zan behe kanpalekura. "Haizea ez zan gelditzen lehenengo kanpalekuan eta baldintza horreetan ezinezkoa da bigarren kanpalekutik aurrera ekipatzen jarraitutea eta horregaitik ebatzi dogu behe kanpalekura bueltetea. Egia esan, balio izan deusku denporea neurtzeko eta igoyerarako proba moduan. Izan

be, gauzez urten ginan eta 7 ordutan heldu ginan lehenengo kanpalekura. Han, -40°C sensazioan ordu batzuk igaro eta behe kanpalekura itzuli ginan. Guztira 16 ordu jardunean" kontau eban sare sozialetan.

Ha-ta guzti be, bigarren kanpalekutik gora ekipetan jarraitu ezin baeban be, pozik geratu zan lemoaztarra egindakoagaz. "Urtekerak honek balio izan euskun, lehenengo kanpalekura 96 kilo inguru eroateko, gero ekipetan eta laugarren kanpalekura materiala eroaten jarraituteko. Kanpandendak, sokak, janaria eta gasa eroan dogu. Gainera, haizeak jo arren, pisu horregaz 7 ordutan heldu gaitkezala ikustea pozgarria izan da".

Hurrengo pausuk, falta dana ekipetea eta tontorrera saiakerea, eguraldiak aukerea emondakoan izango dira.



Alex Txikon.

## ONE WALL

## Arratiarrak itzel One Wall pelota modalidadeko Dutch Open Txapelketan

Herbehereetan jokatutako One Wall txapelketan hiru arratiarrek parte hartu eban Ekhi eta Lur Ziarrusta pelotari dimoztarrek eta Arteako Mikel Beldarrainek.

### Erredakzioa

Bertan Europa eta Ameriketako One Walleko jokalaririk onenak

neurtu ziran. Banakako A Mailan Ekhi finalerdietara heldu zan eta Lur final laurdenetan kanporatu eban. B Mailan barriz, Mikel



Ekhi Ziarrusta, Mikel Beldarrain eta Lur Ziarrusta.

Beldarrainek lortu eban txapela. Binakako Txapelketan, Beldarrainek eta Pozzebon belgiarrek osotutako bikotea finalerdietaraino heldu zan.

Ekhi eta Lur Ziarrustak A Mailako Banakako Txapelketan parte hartu eban eta erraz gainditu eban multzoen fasea, baina final laurdenetan bata bestearen kontra jokatzea egokitu jakien eta anaia zaharrenak irabazi eutsan gazteenari 25-14. Ondoren, Ekhi Ziarrustak Puerto Ricoko Wally Amaro izan eban aurkari finalerdietan. Amaro gainditu jakon (25-16). A Mailan, txapelketea Amarak irabazi eban.

B Mailako Banakakoa Mikel Beldarrainek irabazi eban. Arteako ez eban arazorik izan multzoen fasean eta final laurdenak be erraz irabazi ebazan. Finalerdietan 21-16 irabazi eutsan Terry Mclen-vaney-ri eta finala Karel Monfils holandarrari.

### Binakakoa

Ziarrusta anaia binakakoan be hartu eban parte, baina multzo "gatxa" tokau jakien eta burrukan gogor egin arren, ezin izan ziran finalerdietarako sailkatu. Beldarrainek eta Pozzebonek osterera, bai. Arratiarrak eta belgiarrek britaniar biren kontra neurtu ziran finalerdietan eta 25-16 galdu eban.

## PELOTEA

## Oier Etxebarria eta Amaia Aldayren partiduak Igorreko Udal pelotalekuan

### Erredakzioa

Hiru binakako partidu jokatuko dira Igorren zezeilaren 16an, 17:00etatik aurrera. Lehenengo,

Emakume Master Cupeko Eskuz Binakakoa eta horretan Olatz eta Maite Ruiz de Larramendi, Dimako Amaia Alday eta Lemoako Ainhoa Romerogaz neurtuko

dira, txapelketako lehenengo partiduan. Ondoren, Gazte mailako partidu bat, Ibai Cimadevilla eta Arandiak Arrien eta Morga izango dabez aurkari. Azkenik, Promozino Txapelketako Binakako finalerdietako partidu. Honetan, Aitor Elordi eta Oier Etxebarria igorreztarra, Peña II. eta Arangueneri nagusitzen saiatuko dira.

Oier Etxebarriarentzako profesionaletan lehengo urtea dan hau, sano ondo hasi dau. Igorren jokatuta aurretik, Mallabian jokatuta eban Agirre eta Iturriagaren kontra hilaren 8an eta 22-17 galdu eban. Sei partidu jokatuta eta lau irabazi ostean, Elordi-Etxebarria bikotea hirugarren da sailkapenean.

Partiduetarako sarrerak 5 euroko prezioan erosi daitezke kiroldagian, 16 urtetik beherakoak euro bi ordaindu behar dabez.



Oier Etxebarria.



Amaia Alday.

## AZKOREA

# Atutxa eta Astondoak irabazi ebezan Abadiñon Urrezko Aizkorako probak



Irti Astondoa.



Aitzol Atutxa.

### Erredakzioa

Hilaren 3an, San Blas egunean izan ziran lehiak. Aitzol Atutxa eta Julen Alberdi bikoia euren taldean lehenengo sailkatuta, finala jokatu dabe. Irti Astondoa finalerdiko sailkatu da.

Abadiñon, Atutxa eta Alberdi, Xabier Orbegozo "Arria V." eta Jon Rekondoren kontra neurtu ziran Urrezko Aizkora Txapelketako laugarren proban. Atutxak eta Alberdik, hasikeratik hartu eben aurrea, eta 13 enbor lau modalitate erabiliz, 22:33ko denporan ebagi eben. Arria V.a eta Rekondok, 24:35eko denporea egin eben.

Holan, finalerako sailkatu dira Aitzol Atutxa eta Julen Alberdi.

Finala martiaren 3an jokatu da Azpeitian eta hiru bikote izango dira bertan. Atutxa eta Alberdik gainera, Larrañaga eta Otaño sailkatu dira. Hirugarren bikotea ebazteko dago baina Vicente eta Saralegi bikoia, igazko txapelkunak, dira faborito "finalera sartzeako eta finala irabazteko" azaldu deutso BEGITURI Atutxak.

### Irti Astondoa finalerdietan

Andrazkoen lehian, Abadiñokoa bigarren proba izan zan. Astondoa eta Xanta Sousa neurtu ziran eta zeanuriztarra izan zan irabazlea. Hori dala-eta, zezeilaren 17an, Itxaso Onsaloren kontra neurtuko da Oñatin. Norgehiagoka hau irabazten dauanak finala jokatu dau.

## FUTBOLA

# Arratia bigarren postuan

### Erredakzioa

Arratiako andrazkoen taldeak partidu bakarra jokatu dau hamabostaldi honetan. Zezeilaren 3an Hernanioren bisitea hartu eban Igoarren eta Arratiak 5-0 irabazi eban partidua. Datorren partidua Bizkerre-Arratia izango da etxetik kanpo, hilaren 17an, arrastiko 16:00etan.

Arratiak bigarren segiduten dau sailkapenean 48 puntugaz, Tolosa liderrarengandik puntu bakarrera 20 jardunaldiren ostean.

### B taldea

Andrazkoen taldeak jokatu dau partidu biak irabazi ditu. 7-0 etxean Mungiarren kontra zezeilaren 10ean eta 1-2 Arizen kontra etxetik kanpo aurreko astegoienean. Datorren partidua Adiskideak taldearen kontra jokatu dabe etxetik kanpo, hilaren 17an, eguerdiko 12:00etan.

Arratia laugarren dago sailkapenean 31 puntugaz 17 jardunaldi jokatu eta gero.

### Arratia gizonezkoak

Gizonezkoen taldeak etxetik kanpo



Andrazkoen Arratia B taldea Mungiarren kontrako partiduan.

jokatu ditu atzen partidu biak, 1-0 galdu eban zezeilaren 9an Paduraren kontra eta aurreko astegoienean husnako bardinketea lortu eban Galdakaoren kontra. Datorren partidua Uritarra Aren kontra jokatu dau Arratiak Urbietan, hilaren 16an, arrastiko 16:00etan.

Arratia hamabosgarren dago sailkapenean 18 puntugaz 20 jardunaldiren ostean.

### Arratia B

B taldeak atzen partidu bietan 4 puntu eskuratu ditu. Arratia B 2 Berriatuko 0 izan zan zezeilaren 9an jokatu dau partiduko emoitza eta bina bardindu eban aurreko astegoienean Ibarsuren kontra etxetik kanpo. Datorren partidua Padura Bren kontra jokatu dau Arratiak etxetik kanpo, hilaren 16an, arrastiko 17:00etan.

Arratia B bosgarren dago sailkapenean 36 puntugaz 20 jardunaldiren ostean.

### LemoaHarrobi

LemoaHarrobik atzen partidu biak galdu ditu, 1-2 Montefuerteren kontra Arlonagusian hilaren 9an eta 1-0 Gernika Sportingen kontra etxetik kanpo aurreko astegoienean. Datorren partidua Abadiñoren kontra jokatu dau LemoaHarrobik etxetik kanpo, hilaren 17an, arrastiko 17:45ean.

Lemoako taldea bosgarren dago sailkapenean 31 puntugaz 20 jardunaldiren ostean.

## ERRUGBIA

# Laugarren dago sailkapenean AZ Avia taldea



R.C. Riojaren kontrako partidua.

### Erredakzioa

Arratiko Zekorrek Avia errugbi taldeak ondo hasi eban urtea urtaileko lehen partidu biak irabazita, jokatu dau atzenengo biak osterako galdu egin ditu. Sarako Izarra RTren kontra 76-0 galdu eban arratiarrak urtailaren 26an eta 7-57 galdu eban R.C. Rioja taldearen kontra Igoarreko San Txisme zelaian hilaren 9an. Igoarrekoak, jokatu dau atzen partidu biak galdu dituen arren, taularen erdikaldean dagoz. Izan be, laugarren dago Euskal Liga Senior 2 Maila Ako sailkapenean, 18 puntugaz. Hiru talde ditu aurretik eta beste hiru atzetik. Sarako Izarra RT da lider 48 puntugaz.

Datorren partidua etxetik kanpo jokatu dau AZ Aviak, sailkapenean hirugarren dan Uni Bilbao Rugby B taldearen kontra. Zezeilaren 16an izango da partidua.

# www.begitu.org

publizitatea  
94 631 73 14 eta 649 979 115

Gugaz harremanetan ipinteko  
94 631 73 14 eta 649 979 112  
[begitu@topagunea.com](mailto:begitu@topagunea.com)



## KANTUA

**Anje Duhaldek kontzertua eskainiko dau Areatzan**

Anje Duhalde.

Erredakzioa

Arratia kantuz-en bigarren urteurrenean, zezeilaren 16an, Anje Duhaldek kantaldia eskainiko dau 18:00etan, Areatzako Udal Aretan.

Ez da kantuzaleak antolatu daben ekintza bakarra urteurre-

na ospatuteko. Kontzertuaren ostean, 19:30ean, kantu poteoa egongo da Kantu bat gara taldeagaz; 22:00etan, afaria egingo dabe Aldamin jatetxean eta afalostean, Arratiako kantuzaleak kantuan hasiko dira barriro Anje Duhaldegaz batera.

## ANTZERKIA

**Sex o no sex Lemoan**Erredakzioa

Oihulari Klown antzerki taldeko Virginia Imaz Quijerak gorpuztutako klown parodia da *Sex o no sex* umorezko ikuskizuna. Lemoako Udalak antolatuta, Karabie Gazte-  
txean ikusteko aukerea egongo da hilaren 28an arrastiko 19:00etan.

"Bizitzaren, heriotzearen eta sexuaren inguruko galderak egiten ditu Pauxa pailazoak. Ikusleak bere gogoeta zoroen konplize eta lekuko bihurtuta, bere sexu hastapenak partekatu eta giza hartu-emonen inguruko bere ezinegonak eta lotura osasungarriak kudeatzeko zailtasunak aitortzen ditu. Ikuskizun honetan, hilekoa, kutsadurea, norbere gorpuztagaz daukagun hartu-emon konplejua, lehenengo mosua, koi-toa, kondoiaren negoziaketa, ginekoloarengana bisitea, haurdunaldia, menopausia... moduko gaiak aurkezten ditu Virginia Imazek umorea eta samurtasuna oinari dituan klown jokoaren bitartez; errudun sentidu barik gozatzeko doguzan zailtasunez".

## ERAKUSKETEAK

**Santi Yanizen argazki erakusketea Artean**Erredakzioa

Zezeilaren 18tik martiaren 18ra arte, 16:00etatik 19:00etara, Arteako Kultur Etxean, Santi Yaniz argazkilari eta kazetari bilbotarraren *Izadi sublimea* argazki erakusketea egongo da ikusgai.

Bertan, 25 argazki biltzean dira, bost taldetan bananduta: Gaztelugatxeko ingurua; Urkiolako parkea; Galea, Getxo eta Barrikako kostaldea, eta Gorbeia Parke Naturalean dagozan Otzarretako pagadia eta Belaustegiko

ursaltoa. Argazkilariaren lanaren gaineko ikus-entzunezko batek osotuko dau erakusketea.

**Santi Yaniz**

Santiago Yaniz, (Bilbo, 1957) argazkilari eta kazetaria da 1980tik. Euskal Herriko paisajeak, mendiak eta natura jaso ditu erretratuetan, aldizkari eta liburu askotarako, ehunka lan eta erreportaje ilustrauz. Hogei liburutik gora kaleratu ditu eta erreportajeak eta dokumentalen gidoiak be idazten ditu.



# begitu

arratia ubide zeberio

## ez da debalde



**Emon gitxi, eta jaso asko. Badira, zure diru apur bat merezidu daben berbak. Izan zeu be Begitu-laguna!**

## LEHIAKETEAK

### Lemoako Haur eta Gazteen XVII. Ipuin Lehiaketea

#### Erredakzioa

Lemoako Udalak Haur eta Gazteen Ipuin Lehiaketaren hamazazpigarren edizinoa ipini dau martxan. Lanak martiaren 1era arte entregatu daitezke liburutegian. Sari banaketea apirilaren 4an izango da.

Parte hartzeako 18 urte baino gutxiago euki eta Lemoan bizi edo ikasi egin behar da. Lehiaketea edadearen arabera bost taldetan bananduta dago. Lehenengo taldean, LHko 1. eta 2. mailakoak; bigarrenen, LH 3. eta 4. mailakoak; hirugarrenen, LH 5. eta 6. mailakoak; laugarren taldean, DBH 1. eta 2. mailakoak eta bosgarren taldean DBH 3. eta 4. mailakoak hartuko dabe parte. Ipuinak euskeraz izango dira.

#### Sariak

Sari banaketea apirilaren 4an izango da, 17:30ean, ludotekan. Talde bakoitzeko hiru lan sarituko dira. Saria material didaktikoa izango da. Lehenengo saria 30 euroko balioa daukan materiala; bigarren saria 25 eurokoa eta hirugarrena 20 eurokoa.

Parte-hartzaile guztiak diploma bana jasoko dabe eta saritutako ipuinak Lemoako Udaleko [www.lemoa.net](http://www.lemoa.net) webgunean argitaratuko dira.

## POESIA

### Poesia errezitaldia Igorreko liburutegian hilaren 22an

#### Erredakzioa

Zezeilaren 22an, iluntzeko 20:00etan, Bilboko Rapsodia olerki taldeak, Pablo Neruda, Mario Benedetti eta Joseba Sarrionandiaren poemak errezitauko ditu Igorreko Udal Liburutegian. Martiaren 29an be egongo da barriz Rapsodia taldea Igorren, beste olerki saio bat eskaintzeko.

Bariku horreetan "liburutegiko ateak zabalik egongo dira olerkiak entzuteko eta zeozer edan ahal izateko, kafe antzoki baten egongo bagina bezala" azaldu deutso BEGITURI Irune Elexpe liburuzainak. Hurreratzan diranak be, euren poemak irakurri edo-eta aurkeztu ahal izango ditue, gura izan ezker. Izan be, Liburutegiak plataforma bat izan gura daukultura sortzaileentzat, Elexperen arabera.

#### Rapsodia

Rapsodia Bilboko olerki talde bat da, hoguei urte daroazana batetik bestera poesia zabaltzen.

Manoli López, Eduardo L. Diaz Expósito, Ana Juez eta Pablo Cabañas izango dira Igorreko Liburutegian egongo diran taldekideak. Pablo Cabañas, Igorrekoa da.

## KONTZERTUA

#### Erredakzioa

Igorreko Udalak antolatuta, zezeilaren 16an, 21:30ean, Ruper Ordorikak kontzertua emongo dau Lasarte Aretoan.

2018ko abenduan, zuzeneko diskoa grabatu eban Bilboko Kafe Antzokian eta gau haretan sasoi desbardinatuko errepertorioirik onena jo eban. *Ene begiek, Zaindu maite dozun hori, Belauniko, Martin Larralde, Fas Fatum, Zerutik gertu ez da ondo egoten, Ez da posible* eta abar. Kantu horreek Igorren be entzuteko aukerea egongo da. "Euskal musikagintzearen zutabe bat, bere onenean, musikari ikaragarri inguratuta eta bere onenak emoten" izango da antolatzaileen esanetan.

## Ruper Ordorikak kontzertua emongo dau Igorren



Ruper Ordorika.

## IKASTAROA

### Urte bat eta biko umeentzako musika ikastaroa Igorren

#### Erredakzioa

Arratiako Musika Eskoleak urtebete eta biko umeentzako ikastaroa antolatu dau martiaren 15ean hasi eta maiatzaren 3ra arteko barikuetarako. Ikastaroaren helburuak dira, beste batzuen artean, umearen adimen musikala gartutea eta inguru familiar eta soziala musika aldetik aberastutea.

Eskolak Igorreko Kultur Etxean izango dira eta talde bi egongo dira; bata 17:00etan eta bestea 18:00etan.

Umea lotura afektiboa daukan heldu batez joango da saioetara, baina ez dauka zertan beti persona bera izan.

Ahal danik eta inguru musikalean murgiltzeko, ikastaroan umeak eta umeai lagunduten deutseen helduak, alkarregaz abestu, errezitatu, mobidu eta olgetan egiteko aukerea izango dabe ikastaroko saioetan.

#### Izena emon

Taldean gehienez 10 ume eta 10 heldu egongo dira. Izena, *arratia*.

[musikaeskola@gmail.com](mailto:musikaeskola@gmail.com) helbidetan edo 94 631 73 52 telefonoan, astelehen, eguazten eta barikuetan 10:00etatik 13:00etara emon daiteke.



## DUNBA

### Ate irekiak Arratia BHIIn

Urtilaren 30ean, ate irekiak eguna izan genduan

Arratia Institutuan.

#### Arratia Institutua

Gure ikastetxera etorriko diran Arratiako eskola guztietako gurasoak eta Tranbia Txiki Guraso Elkarteak Xabier eta Estigaz berbetan egon ginan, gu eta gure ikastetxea hobeto ezetuteko.

Honakoa da azaldu geuntsena:

#### Nortzuk gara?

Arratiako herri guztietakoak dira gure ikasleak: Zeanuri, Areatza, Artea, Arantzazu, Igorre, Dima, Lemoa eta Bediakoak, alegia; eta Zeberiotik be badatoz ikasleak.

Aurten, 54 irakasle eta 438

ikasle gara. Ikasleak 20 taldetan bananduta dagoz: 16 DBHn, maila bakoitzeko 4 taldez gainera, 3. eta 4. dibertsifikazio kurrikularra be badogu. Batxilergoan beste 4 talde doguz, Zientziak eta Teknologia eta Giza eta Gizarte Zientziak arloetan.

#### Zeintzuk dira gure proiektuak?

Hainbat proiektutan gagoz murgilduta.

#### Hizkuntzakak lotuta dagoz-nak:

-Hizkuntza Normalkuntza: euske-



rea sustatzeko helburuagaz. -Eleaniztasunerantz: DBH 1etik 4ra ikasgai bat ingelesez ikasiz. -Bertsolaritza: zaletasuna gozatuz.

#### Hartu-emonak hobetzeko egitasmoak be badoguz:

-Alkartzitza: kideen arteko hartu-emonak sendotzeko. -Hezkidetzak: nesken zein mutilen eskubideak babesteko. -Resilientzia: arazoetatik ikasteko eta indartuta aterateko.

#### Beste batzuen bidez, maila akademikoa hobetuz goaz:

-Bidelaguna: arlo akademikoa eta hartu-emonak bermatzeko. -Ikasketa Kooperatiboa: batak bestearengandik ikasi ahal izateko. -Aniztasun Taldeak: HBSP eta Curriculum Aniztasuneko taldeakaz. -Sare Hezkuntza: IKTak eta teknologia landuz.

STEAM programak teknologia, musika eta arte diziplinen arteko alkarlana hartzean dau. Eukelele bat egin dabe teknologia klasean, plastikan kustomizatu eta musikan jo. Gure ingurua baloretan ikasteko badogu Agenda 21 Proiektua.

Bestalde, Jantokia eta garraio zerbitzua daukaguz asteleheneetik barikura bitartean.

Gurasoen alkarteari jagokonez, Tranbia Txiki alkartea da, institutuan gurasoak daukien inplikazioa areagotzeko, eskolaz

kanpoko ekintzak zein ekintza osagarriak sustatzeko, alkarbizitzaren alde eginaz.



**AGENDEA**

**ZEZEILAK 14  
ARRATIA**

Hilaren 15era arte, Iratxe Retolazaren *Begiradak zorrotz*: euskal literatura eta begirada feministak ikastaroan izena emoteko epea zabalik. Online, udalaxeetan eta AUMen.

Martiaren 15ean hasiko dan urtebete eta urte biko umeentzako musika ikastaroan izena emoteko epea zabalik. Izena, [arratia.musikaeskola@gmail.com](mailto:arratia.musikaeskola@gmail.com) helbidean edo 94 631 73 52 telefonoan, astelehen, eguazten eta barikuetan 10:00etatik 13:00etara emon daiteke. Ikastaroa Igorreko Kultur Etxean izango da.

**BEDIA**

Martira arte, Kolazinoko Mendi Eguneko lasterketetan izena emon daiteke [www.kolazinokomendieguna.com](http://www.kolazinokomendieguna.com) webgunean.

Zezeilaren 21era arte, Udalak antolatutako sukaldaritza ikastaroetan izena emoteko epea. *Okela eta arraina* ikastaroa martiaren 14tik aprilaren 4ra izango da; *Gozogintza* ikastaroa, maiatzaren 9tik 30era.

**DIMA**

Zezeilaren 19ra arte, oposizino-lehiaketa aske bitartez beteko dan administrari lanposturako dokumentazioa aurkezteko epea udalaxeetan.

**IGORRE**

Jon Urutxurturen *Arratia posta txartelean* erakusketa. Kultur Etxeko Erakusketa Gelan hilaren 28ra arte.

**LEMOA**

Martiaren 1era arte, Haur eta Gazteen Ipuin Lehiaketan lanak aurkezteko epea.

**ZEBERIO**

Martiaren 4ra arte, klima aldaketeari buruzko bideo laburren lehiaketan parte hartzeako lanak bialdu daitezke [info@udaltalde21.eus](mailto:info@udaltalde21.eus) helbidera.

**ZEZEILAK 15  
ARTEA**

18:30ean, Olatz Dañobeitiaren eskutik, berbaldi-tailerra *Andren aurkako biolentzia ekonomikoa aztergai* Andran Gelan.

**DIMA**

Aurrera Bolie! Egune. 19:00etan, giza futbola eta fatxa bolo jaurtiketea; 20:00etan, sari banaketea, bitartean argazki erakusketea. Ernaik antolatuta. Frontoi txikian.



**IGORRE**

09:00etan, Gurutze Gorriak antolatuta, Jubiladu eta Pensionistentzako mendi ibilaldia Igorre-Dima-Baltzola-Egiraun-Dima. Igorreko farmazian.

**ZEBERIO**

19:30ean, Ongi Etorri Errefuxiatuak Zeberio

antolatuta, zurrumurruen aurkako berbaldi- eztabaida, Xabier Aierdiren eskutik udalaxeetan.

**ZEZEILAK 16  
AREATZA**

Arratia kantuz-en urtemuga jaialdia. 18:00etan, Anje Duhalderen kontzertua Udal Aretoan; 19:30ean, kantu poteoa; 22:00etan, afaria.



**DIMA**

10:00etan, izotz pistara urtekera 2006 eta 2011 urteen bitartean jaiotakoentzat.

**IGORRE**

11:30ean, Kiñu Gaztetxean Korrikako publikiak montetako deialdia.



**Peru eta otsoa ipuin musikatua  
Igorreko Lasarte Aretoan**

Didau Antzerki Faktoriak ekarriko dau Igorreko Lasarte Aretora zezeilaren 22an, 17:30ean, *Peru eta otsoa* umeentzako ipuin sinfonikoa.

Serguei Prokofiev musikari ukrainiarrek idatzi eban ipuin hau 1936an, musika sinfonikoa umeai modu dibertigarrian hurreraturako. Horretarako, ipuin errusiar bateko personajeak hartu eta bakotxari instrumentu bat egokitu eutsan errepresentazio modura. Holan, Peru, orkestako hari instrumentuen bidez azalduko da, txori txikia zeharkako txirulea izango da; ahatea, oboea; katua, klarineta; aitita, fagota; basoan bizi dan otsoa, tronpak, eta ehiztariak, tinbalak eta bonboa.

17:00etan, pelota partiduak kiroldegiko frontoian. Olatz eta Maite Ruiz de Larramendi vs Amaia Alday eta Ainhoa Romero; Cimadevilla eta Arandia vs Arrien eta Morga eta Aitor Elordi eta Oier Etxebarria vs Peña II.a eta Aranguren.

21:30ean, Ruper Ordorikaren kontzertua Lasarte Aretoan.



24:00etan, Los Windsor taldearen kontzertua Troka tabernan.



**LEMOA**

10:00etan, Ganzabal Mendi Taldeak, JB Eguzkitza Meabe ikastetxeak eta Lemoako Udalak antolatuta, zugatz eguna San Antolinen. Elizondon.

09:30ean, Tallerretan. Gazte Topaguneko

akanpalekua prestatuteko bigarren auzolan deialdia. Bakotzak daukana eroan dagjala (sasi-garbitzekoa eta motozerrak berbarako). Ez daukanak ezer bertan eukiko ditu erremintak. Guanteak eroan behar dira. Ernai eta Aitzinak antolatuta.

**ZEZEILAK 17  
AREATZA**

10:30ean, Bilbora urtekera, Bilboko Musika Banda, Nuria Fergo, Felipe Garpe eta bere mariabxien kontzertua entzutera. AKKBK antolatuta.



**DIMA**

11:00etan, Igitie azokea; 12:30ean, sendabelarren tailerra frontoian.



**IGORRE**

17:00etan, zinea *Spiderman, un nuevo universo*; 19:30ean, *El vicio del poder* Lasarte Aretoan.

**LEMOA**

08:00etan, Ganzabal Mendi Taldeak antolatuta, goizeko urtekera. Ogoño (305 metro)-Atxarre (312 metro). Lemoako eskoletan.

10:00etan, Lemoa Txirindulari Elkartek antolatuta, bizikleta urtekera. Arlonagusiako kantuan.

**ZEANURI**

San Balendin. 11:30ean, mezea Andra Mari parrokian; ondoren, San Balendinen irudia parrokiatik Piedade ermitara prozesinoan eroan; 12:15ean, Piedadeko artea neurtu eta 12:30ean, barsukarria txistulariak eta Arkaitz Estiballesen bertsuak lagunduta.

**ZEZEILAK 18  
ARTEA**

16:00etatik 19:00etara, martiaren 18ra arte, *Izadi sublimea* erakusketea Kultur Etxeko areto nagusian.

**IGORRE**

10:00etan eta 12:00etan, jubiladuentzako Photoshop ikastaroa Kultur Etxeko KZ Gunean.

**ZEZEILAK 19  
BEDIA**

19:00etan, Jaietako Batzordearen lehenengo batzarra.

**ZEZEILAK 22  
AREATZA**

18:00etan, Jai Batzordearen batzarra

udalaxeetan.

**IGORRE**

20:00etan, Rapsodia olerki taldeak Pablo Neruda, Mario Benedetti eta Joseba Sarrionandiaren poemak errezitauko ditu Liburutegian.



**ZEANURI**

17:00etatik 20:00etara, Iratxe Retolazaren ikastaroa *Begiradak zorrotz*: euskal literatura eta begirada feministak Kultur Etxean.

**ZEZEILAK 23  
IGORRE**

22:00etan, zinea *La favorita* Lasarte Aretoan.

**ZEANURI**

10:00etatik 13:00etara, Iratxe Retolazaren ikastaroa *Begiradak zorrotz*: euskal literatura eta begirada feministak Kultur Etxean.

**ZEZEILAK 24  
ARTEA**

Kanporamartxo. 10:30ean, mendi martxea Artea-Ilunbe-Artea, Industrialdeatik hasita; 13:00etan, txixi-burruntzia Elexabeiti auzoan.

**BEDIA**

Kanporamartxo. Goizeko urtekera Ganguren antolatuta Udalaren laguntzeagaz.

**LEMOA**

10:00etan, Lemoa Txirindulari Elkartek antolatuta, bizikleta urtekera. Arlonagusiako kantuan.

**ZEZEILAK 25  
ARTEA**

10:00etan, jubiladuentzako telefono mobikorraren erabilerearen gaineko ikastaroa, jubiladuen egoitzan.

**IGORRE**

17:00etan, zinea *La gran aventura de los Lunnis y el libro mágico*; 19:30ean, *La favorita* Lasarte Aretoan.

**ZEZEILAK 28  
LEMOA**

10:00etan, JB Eguzkitza Meabe ikastetxeak antolatuta, txixi-burruntzia guraso eta ikasleentzat eskolan.

19:00etan, Virginia Imazen *Sex o no sex* umorezko ikuskizuna Karabie Gaztetxean. Udalak antolatuta.



# AKIMIKO

Kailoren



## ODOL BALTZA

### IRAGARKI LABURRAK

#### SALDU

##### BASERRIA SALGAI

Baseri barriztua saltzean da Areatzan. 210 m<sup>2</sup>, 3 solairutan bananduak. 4 logela, komun bi. Terrenoa etxe inguruan. Herritik oso hur. 685 717 504 (Garazi).

#### DANERIK

##### TRIKITIXEA EROSTEN DOT

Bigarren eskuko trikitixea erosten dot, Sol tonoan balego hobea. Interesdunak 657 707 725 telefonora deitu.

#### ETXE BILA

Arratiatik baseri-etxe bila gabizan 4 andra gara (etxerako modukoak). Alkilerrean. Interesdunak 685 707 176 zembakira deitu.

#### ALOKAIRURAKO LAGUN BILA

Dimako Egiraun auzoan leku eder baten baseri dotore eta polit baten alokairua konpartiduteko pertsonen bila gabiz. 450 euro. Ortu, tenis zelaia eta bainua hartzeako aukerea. Interesdunak 607 482 499 telefonora deitu.

#### ETXE BILA

Areatzan pisu/etxe bila gabiz familia gara. Alokatzeko zein erosteko prest. Herrigunetik hur egotea gustauko litxakigu. Interesdunak 653 745 838 telefonora deitu.

**Zeozer saldu, erosi, alokatu, trukea egin, behar edo behargin bila bazagoz, bidali asko jota 25 berbako mezu bat. [begitu@topagunea.com](mailto:begitu@topagunea.com)-era. Mezuak doban dira.**

## Begitu-lagunen txokoa

### Zenbaki honetako saridunak:

**1** Igorreko Kultur Etxeak emondako bina sarrera *Peru eta otsoa* antzezlanerako.

Iban Gortazar (Areatza)  
Ekhi Zabala (Basauri)



**2** Igorreko Kultur Etxeak emondako bina sarrera *Ruper Ordorikaren kontzerturako*.

Rakel Iruarizaga (Arantzazu)  
Bego Pedrosa (Areatza)



Zerturen argitalpenak jasoko dozuz, zozketetan sartuko zara. BEGITUK 16 urte eta ehundaka lagun.

94 631 73 14 | [www.begitu.org](http://www.begitu.org) | [begitu@topagunea.com](mailto:begitu@topagunea.com)

umean meda  
**seim**  
0-16  
Agirre Lehendakaria, 31 • 48140 IGORRE  
Tfnoa: 94 631 92 96 • [seimmeda@hotmail.com](mailto:seimmeda@hotmail.com)

*Kepa Intxausti*  
TAXI ZERRITZUA  
609421222  
IGORRE

*Orde*  
FOTOKOPIAK - PAPERDENDA  
L. Agirre, E.  
48140 Igorre (Bizkaia) Tfnoa: 94 673 61 75

AKITEGIA  
**GAY & LORA**  
IGORRE

Igorren  
**ARKITEKTOA**  
Aitzol Aurrekoetxea Pujana  
Lehendakari Agirre 23, behea  
[aitzol@coavn.org](mailto:aitzol@coavn.org) - 675 705 111

Recreativos Gubi S.L.  
Angel Larrea  
Zornotza Tfnoa 649 86 95 36

**KIRRU**  
ILEAPAINDEGIA  
ROSANA eta ROBER  
SABINO ARANA 38  
IGORRE  
Tf. 94 631 92 00

Beer & Edariak s.l.  
HEINEKEN SOLARES  
Polig. Mendaketa, s/n 48530 LEMOIA, Bizkaia  
Tel: 609 482 839 • 699 290 717

**ZUZENBIDE**  
ASEGURUAK: AUTOAK ETXEBIZITZAK  
AHOLKULARITZA: LAN ZUZENBIDEA ZERGAK KONTABILITATEA  
DENDAK ISTRIPUAK BIZITZA...  
Tf. 94 673 71 41 - 94 673 70 55 - 94 612 11 96 - Faxe 94 612 11 96  
Sabino Arana 3, behea - Igorre (Bizkaia)

**BIXER**  
TABERNA  
Beko kalea, 2 - Tel. 94 631 73 65 - VILLARO

Jose Luis Corbacho  
**pintura lanak**  
Sabino Arana, 3, 3a • 94-673-70-87  
Igorre 48140 Bizkaia • 609-79-40-54

**AKESOLO, S.A.**  
GARRAIOK, NEUMATIKOAK ETA ZERRITZUAK  
Gorte, 29 Telefonoa: 94 673 60 14 IGORRE-BIZKAIA

*Pinturas Anatia*  
Javi Morato  
Tel. 628 443 992

NAIARA HORTZ KLINIKA  
Lehendakari Agirre, 19  
48140 Igorre  
94 631 52 26

## PATXI LOPEZ MUÑOZ

**"Ohitu egin naz bakarrik ibiltzen, presa barik"**

Patxi Lopez Muñoz Areatzakoa, Antartida kenduta, beste bost kontinenteetan ibili da bizikletaz biajeak egiten.

Biajetea eta bizikletan ibiltea, pasino biak lotu, eta mundu osoko herriak beste erritmo baten ezetuten ditu oporretan. Beste zaletasun bat be badauka Lopezek: argazkigintza. Bere biajeetan egindako argazki eta bideoak editau eta bere Youtubeko kanalean ipinten ditu bueltan. Izan be, ikus-entzunezkoak lagungarri izaten dira biajeak kontetako. Leku askotatik deitzean deutsie horretarako; barbarako Arratia Institutuan emongo dau berbaldi bat martiaren 12an.

**Erredakzinoa****Zein izan zan zure lehenengo biajea bizikletan?**

Oin dala 30 urte hogeit bat urte neukazanean, Kantauriko kostaldetik izan zan lehena. Oindino ez zan gertatu donejakue bidearen booma. Kaminoko bizikleta bategaz egin neban, orduan ez egoan mendiko bizikletarik eta. Eskuz egindako parrilla batzuk eta zakutoak hartuta Santiagoraino joan nintzan. Kanpinleketan egiten neban lo, kanpindandan. Eta orduan deskubridu neban bizikletaz biajetea zoragarria dala.

**Zergaitik?**

Bizikletan joateak, biajeak astiro egiteko aukerea emoten dau; herrialdean eta kulturatan apurka-apurka sartzeako aukerea, jentea

ezetutekoa. Hegazkinak lur hartzean dauanean, motxila hartuta antolatutako biajeetan bazoaz, presaka ibiltzen zara, gauza asko ikusteko. Nik holangoak be egin izan dodaz, baina biaje desbar-dinak dira eta nik gurago dot bizikletan.

**Kantauriko kostaldekoa lehenengoa izan zan eta gero beste asko etorri ziran, ezta?**

Bai, Antartida kenduta beste bost kontinenteetan egon naz. Oin dala denpora asko, hogeit bat urte edo, eszedentzia hartu eta Australian egon nintzan hiru hilabetez. Gero, Asiatik be ibili nintzan, Malasia eta Indonesiatik. Europa osotik be bai: Viena, Ukraina... Urte baten Istanbuletik Dubvronik-erako ibilbidea egin neban.

Bizikletaz ibiltearen alde txarrak,

trafikoa, eta batzuetan zonalde interesante batetik bestera distantzia handiak egoten dirala dira. Horregaitik ondo aukeratu behar izaten dira lekua eta ibilbidea.

Europatik ibili ostean, Ameriketatik hasi nintzan biajeak egiten. Brasilgo ekialdeko kostaldean 35 egun ibili nintzan.

Himalaian be egonda nago eta atzen urte biotan Afrikan: Madagaskarren eta Ugandan, hain zuzen be.

**Inportantea izango da gataska armaturik ez dagoan herrialdeak aukeratzea, ezta?**

Bai. Niretzat inportantea da herrialdeak bizikletan ibilteko moduko orografia bat izatea eta gataska belikorik ez egotea. Brasilera joan nintzanean, hondartza zonalde batetik ibili gura neban eta gero beste leku batzuk ezetutea be gura izan neban. Herrialde oso-oso handia da eta ezinezkoa da bizikletaz osorik ezetutea; horretarako urtebete edo behar da. Gainera, zonalde interesgarri batetik beste zonalde interesgarri batera joateko distantziak handiak dira eta autobusa hartu behar da. Eta gero dago urietako arriskua. Brasilen urietan bizikleteagaz ibiltea arriskutsua da, ez trafikoagaitik bakarrik, lapurretakaitik be bai.

**Zein izan da interesgarriena iruditu jatzun lekua?**

Leku guztiak daukie zeozer interesgarria, ezingo neuke bakarra aukeratu. Geografia aldetik, Himalaia. Sentiduten dozu kilometroak egiten zabilzala eta bizikleta barik ez zarala ezer. Himalaian, Indiako iparraldean, Tibetegaz mugako paisajeen handitasuna aukeratuko neuke.

Personai jagokienean, Afrika. Eta Afrika aitatzen danean animaliak be aiatatu behar dira. Ugandan, barbarako, animaliak kamino zeharkatzen dabe. Bizitza

edonon dago; txori piloa, jirafak... Eta zu bizikleteagaz elefante eta jirafen ondoan, Nilo ibaia, txoriak, basoak... Oso interesgarria da.

Madagaskar be asko gustau jatan. Kontinentetik aparte dagoan irla bat da eta endemismo piloa dauka. Eta baobabak paisaje onirikoa egiten dabe, beste planeta batekoa dirudi.

**Zelan prestatzen dozu biajea?**

Lana dala-eta, derrigor joan behar naz abuztuan. Inspirazio iturria internet da. Badagoz bizikletaz biaje handiak egin dituenak eta euren blog-ak jarraituten dodaz.

Gero lagunai aurkezten deutset idea eta batzuetan lagunak eta beste batzuetan bakarrik joaten naz. Bakarrik joatea sano gusetan jata. Ohitu egin naz bakarrik ibiltzen presa barik. Aspaldi honetan GPSagaz eta ibilbidea ondo markautu ibiltzen naz. Eta gero han, orografia, eguraldia edo dana dalakoagaitik autobusa hartu behar badot, autobusa hartzean dot arazo barik. Ostatu ez dot alde zurretatik hartzean. Bizikleteagaz oso erraza da ostatu topatzea. Herrian sartu ahala, hotelak egoten dira.

Kilometro gitxien egiten dodan egunetan 25 kilometro inguru egiten dodaz. Normalean, 25 eta 100 kilometro bitartean. Egun baten Ugandan 120 kilometro egin nebazan, errementautu amaitu neban. Kontuan izan behar da zakutoak 25 kilo inguru pisatzen dituela: beroa, aldapak...

**Izan dozu arazorik animaliak?**

Ez, baina kontuz ibili naz. Afrikan parke natural batera hurreratu ezker, galdetu egin behar izaten da ea bufalorik dagoan. Ez dakit zergaitik baina bufaloak txirindularia etsai moduan ikusten dabe eta eraso egiten dabe.



Himalaian arazoak lurjauziak izaten dira. Abuztuan montzoi sasoa da, orografia oso menditsua da eta harri asko dagoz. Han, harriak kamino mozteko arriskua dago.

Brasilen eta lantinoamerikan orokorrean, lapurreta arriskua dago. Brasilen protokolo bat neukan, atraku baten aurrean, nik dana emon. Maillot azpian eroaten nebazan pasaporte eta kreditu txartel bi, etxera buelta ahal izateko. Baina baten batek atraku baten bizikletea eskatu ezker, ni dana emoteko prest nengon.

**Bueltan bideoak egiten dozuz eta Youtuben egoten dira ikusgai.**

Bai. Neure kanala daukat eta bertan ipinten dodaz egiten dodazan argazki eta bideoak. Hainbat lekutatik be deitzean deuste biajea kontetako. Martiaren 12an, Arratia Institutuan egongo naz.

**Aurten nora joango zara?**

Ez dakit. Alde batetik, Afrikan joango nintzateke. Afrika ezetuten jarraituteko gogo daukat baina gogorra da: txertoak hartu behar dira eta klima be gogorra da. Uste dot aurten Perura joango nazala.

# ALKIZABAL

ZURE BEHARREI ERANTZUNA

Bolunburu Poligonoa, 19  
Amorebieta - Lemoa errep.  
48330 LEMOA (Bizkaia)

Tel. 946 31 44 06  
Fax. 946 31 20 26  
alkizabal@alkizabal.net

[www.alkizabal.net](http://www.alkizabal.net)

Basoak garbitzeko makineria

ERAIKUNTZA ETA INDUSTRIARAKO SOLUZIOAK

ERAIKUNTZA, LOREZAITZA, EKITALDI ETA INDUSTRIARAKO MAKINERIA KONPONKETA ALOKAIKUA ETA SALMENTA